

Beste azentu bat Bizkaikoa: Getxo (azentudun hitzak)¹

Another accentual system from Biscay: Getxo (accented words)

Xabier Bilbao*

Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV/EHU)

ABSTRACT: Several works have described the prosodic system of Getxo Basque and North-western Basque in general: its pitch-accent nature, the occurrence of accent by the action of accenting morphological operations (compounding, derivation, inflection) and of phrase-level accent assignment rules, and the existence of lexically accented and unaccented morphemes. This paper focuses on the case of accented words whose accent does not derive from the morphological operations mentioned above, and intends to modestly contribute to the field by exemplifying and classifying the different sources of this lexical accent in Getxo Basque. These sources are, namely, the inheritance of accent from borrowed words and the existence of non-complex native accented words of unknown derivation. The compilation is completed by suggesting the possibility that the first-syllable accent found in a number of words might be motivated by the words' expressive value, and therefore not be a case of lexical accent but an accent assigned by a phrase or sentence level rule of syntactic or intonational nature.

KEYWORDS: prosodic system; pitch-accent; lexical accent; Western Basque; Getxo Basque.

LABURPENA: *Zenbait lanek eman digute Getxoko euskararen eta, oro har, Ipar-Sartaldeko euskararen azentuarien berri. Lanoi esker, badakigu eremu horretakoa tonu edo doinu motako azentua dela gauzatze akustikoz, eta hitzean duen kokalekuaren aldetik dituen ezaugarri nagusiak direla morfema azentudunak eta azentugabeak daudela, hitzek zenbait eragiketa morfologikoren eraginez har deza-*

¹ Esker ona zor die egileak lan honetan agertzen diren datuen bilketan lekukotza eta laguntza eman dioten getxoztarrei edo haien senideei, bere garaian egileari lagundu zioten hitzuen batzuk ez daude-eta, gaur egun, gure artean. Orobat eskertzen dio BBK Aurrezki Kutxari (gaur egun, Kutxabank) 1991 eta 1995 urteetan lan honek eta beste batzuek oinarri duten bilketa eta lanketa diruz lagundu izana.

* **Harremanetan jartzeko / Corresponding author:** Xabier Bilbao. Euskal Hizkuntza eta Komunikazioa Saila - Gizarte eta Komunikazio Zientzien Fakultatea (UPV/EHU). Sarriena auzoa, z/g (48940 Leioa). – xabier.bilbao@ehu.eus

Nola aipatu / How to cite: Bilbao, Xabier (2023). «Beste azentu bat Bizkaikoa: Getxo (azentudun hitzak)», *ASJU*, 57 (1-2), 165-182. (<https://doi.org/10.1387/asju.25920>).

Jasoa/Received: 2022-10-31; Onartua/Accepted: 2023-01-13.

ISSN 0582-6152 - eISSN 2444-2992 / © UPV/EHU Press



Lan hau *Creative Commons Aitortu-EzKomerziala-LanEratorririkGabe 4.0 Nazioartekoa* lizentzia baten mende dago

ketela azentua (hitz-elkarketaz, eratorpenez edo flexio-atzizkien eransketaz) eta eremu prosodikoan ezartzen den bigarren azentu bat dagoela. Lan honetan jatorriz azentudun diren hitzei begiratzen zaie (hau da, elkarketaz, eratorpenez edo flexioz azentudun bihurtu ez direnei) eta duen helburu xumea da halako hitzak modu ordenatuan adibidetzea. Horretarako, zenbait multzotan antolatuko dira adibideak eta alde batetik ikusiko da maileguen kasua (jatorri duten erdal hitzaren azentua gorde duten hitzak) eta, bestetik, gainerako euskal hitz bakun azentudunen kasua. Bukatzeko, balio adierazkor berezia duten euskal hitz azentudunen adibide batzuen kasua aipatuko da, eta, haiekin lotuta, sintaxi mailako silaba-hasierako azentu-esleipen arau bat egon ahal izatea.

GAKO HITZAK: azentu-sistema; tonu-azentua; azentu lexikoa; Ipar-Sartaldeko euskara; Getxoko euskara.

1. Sarrera

Badira urte batzuk J. Ignacio Hualdek lehen berria eman zuela Getxoko azentuaz (Hualde 1989b). Lan hartan Getxo udalerriko euskararen azentuaren gakoak aurkeztu zituen: tonu- edo doinu-azentu erakoa dela; azentuaren eremua bikoitza dela (hitza eta talde prosodikoa); hitz eta atzizki azentudunak eta azentugabeak daudela (lanean, *markatuak* eta *ez markatuak*); zein diren azentuaren kokagunea hitz mailan zuzentzen duten arauak, eta, euskal azentuen sailkapenean, *Getxo-Gernika* izena (ikus Hualde 1989a) ematen zaion azentueraren adibide dela.

Hurrengo lan batean (Hualde & Bilbao 1992) zehaztu egin ziren zenbait alderdi: hitz eremuko azentua, hitzaren berezko azentua ez denean, nola agertzen den zenbait eragiketa morfologikok eraginda (flexioa, eratorpena eta elkarketa); nola flexioz eta eratorpenez ezarritako azentuak, kasu gehienetan, erantsitako morfeman ez, baizik oinarriaren silaba batean azaleratzen diren; nola atzizki gutxi batzuk azentu-emaile izan beharrean azentu-ezabatzaile diren; eta, azkenik, hurbilketa bat ikusteko nola ebazten diren bi azentu jasoko lituzketen hitzen kasuak; hau da, zein den emaitza azentudun den oinarri batek, azentudun den morfema bat ere eranstearen ondorioz, bigarren azentu bat hartzen duenean lehen azentuaren ondoko silaban.

Getxoko azentu-moldeen berri gehiago dakarren hurrengo lanean (Zuazo & Goiti 2016) berezko azentuz —azentu lexikoz— ageri diren hitzak hiru multzotan adibidetzen dira (maileguak; morfema-konbinazio bidezko azentudunak; azalpen argirik ez daukatenak) eta bereziki adibidetzen dira esanahi aldetik bereizgarria den azentua erakusten duten kasuak, hala nola azentu soilaren bidezko singular/plural bereizketak (*lagunèk²* vs *lagúnek*); aditz trinkoetan *ba-* aurrizki baiezkkoa eta baldintzazkoa azentuz bereiztea (*badakì* vs *bádakì*); aditz laguntzaileetan *-la* perpaus osagarria (*daulè* ‘dagoela’, osagarria) eta denborazko/aginduzko perpausa (*dáule* ‘dagoela’) bereiztea; eta, era berean, azentuz bereiztea lehenaldiko laguntzaileak (*ikus sendùn lagunè* ‘(bai, ikusi zenuen laguna’, ekintzaren baiezkotasuna azpimarratuta) eta erlatibo-*-en* menderagailua dutenak (*ikus séndun lagunè* ‘ikusi zenuen laguna’ = ‘ikusi zenuena’). Lanean Ipar-Sartalde osoko ezaugarritzat jotzen da hitz eta atzizki azentudun eta azentugabeen arteko bereizketa; talde fonologikoaren mailako azentua ere

² Lan honetan ezkereranzko eta eskuineranzko azentu-markak erabiltzeko irizpidez, ikus hurrengo (3.) oharra.

agertzea (taldearen azken silaban) eta azentuak ahalmen bereizgarria izatea, tokian tokiko berezitasunak gorabehera.

Hori da orain arte azaldu eta adibidetu dena Getxoko azentuaz. Lan honen asmoa da ekarpen txiki bat eranstea aurreko horietan aipatu denaz; zehazki, lan honetan berezko azentua duten hitzen berri emango da, edo, bestela esanik, morfema-konbinazioz erantsiriko azenturik ez duten azentudun hitzen berri.

Halako hitzen sailkatze eta adibidetze bat egiten da Hualderen eta Elordieta neba-arreben Lekeitioko euskararen gaineko lanean (1994), eta, edonork aurrean ahalko lukeenez, gaztelerako maileguak azentudun hitz bakunen iturri oparoa ditugu bai Lekeition eta bai Getxon, Hegoaldeko euskara guztietan —edo ia guztietan— izango den bezala. Lan horretako abiapuntu bera —erdal maileguak— hartuko dugu hitz azentudunetaz hitz egiten hasteko. Gaminderen lan batzuetan ere bereiz adibidetzen dira morfema-konbinaziorik gabeko hitz azentudunak Getxoko euskaratik hurbilago diren hizkeretan (adibidez, Gaminderen 1999 lana Bakioko azentuaz). Ikertzaile horrek Getxo-Gernika azentu motan kokatzen diren herri-hizkeretaz egindako lan ugariak laguntza handia dira, eskualdeko herri bateko kasuan murgilduta diharduenarentzat, datuek erakusten dutenari testuingurua eta sendotasuna emateko orduan.

2. Azentudun hitzak (hitz bakun edo morfema bakarrekoak)

Getxoko euskararen gaineko 1992ko lanak 2.200 hitz inguruko bilduma bat dakar eranskin gisa. Zerrenda horretan hitz azentudun eta azentugabeen kontaketa eginez gero, gehiengo dira azentudunak (% 59 bat dira). Baina aintzat izan behar da azentudun horietatik gehienak maileguak direla. Maileguzko hitzak kenduta, gehiengo dira azentugabeak. Hala ere, ohartu beharra dago maileguzko hitza izateak —gaztelerako hitz guztiek azentua dutenez gero silabaren batean— ez duela esan nahi euskaraz —Getxon behintzat— azentudun izango direnik, erdal azentudun asko azentugabe bihurtu dira-eta. Gertaera hori eta beste batzuk ikusiko ditugu hurrengo orrietan.

Mailegu zaharrak eta berriak bereiz ikusiko ditugu; alde batetik, portaera ezberdina dutelako azentua gordetzeari begira, eta, oro har, ohiko prozedura dugulako mailegu zahar/berri banakuntza euskal lexikoa aztertzeke orduan. Bestalde, atal banatan aztertuko ditugu izen-adjektibo mailegatuak eta aditzak. Horren zergatia da aditzetan, jatorrizko azentua zein silabatan erortzen den baino gehiago, zer infinitibo motakoak diren (*-ar*, *-er*, *-ir*) begiratu behar dela.

2.1. Mailegu berriak

Gazteleraz azentua azken silaban duten hitzek (oxitonoak) azentua galdu egiten dute Getxoko euskarari; azken aurrekoaren aurreko silaban dutenek (proparoxitonoak), berriz, gorde egiten dute azentua silaba berean; azentua azken aurreko silaban daramatenek (paroxitonoak), azkenik, ez dute portaera bateraturik: batzuek azentua galdu, beste batzuek gorde eta, beste batzuek, berriz, aukera bikoitza, azentuaz zein azenturik gabe entzun daitezke.

2.1.1. Mailegu oxitonoak

Mailegu hauetako gehienak gaztelar atzizki sorta batez bukatutako hitzak dira: *-al, -el, -ol, -ar, -or, -dad, -dor, -ón, -ión*, eta maileguz bakan aurkitzen diren besteren batzuk gehiago.

Gaztelarako *-al, -el, -ol, -or, -dor* atzizkidun maileguak: horietan ez da forma alde-tiko aldaketarik gertatzen, azentua galtzea salbu, euskarara iragatean. Mugatu singularreko formak, beraz, honelakoak dira (ezkerrean zko azentu-marka erabiliko dugu azentu prosodikoa irudikatzeko):³ *gazt. material* → eusk. *materialà*; *cordel* → *kordelà*; *farol* → *farolà*; *corredor* → *korredorà*. Hona hemen gaztelaraz oxitono bat jatorri duten maileguen adibide batzuk abs. mugagabeko forman:

- (1) *kanal* «canal», *karnabal* «carnaval», *material* «material», *munisipal* «municipal», *nasional* «nacional», *perkal* «percal», *kartel* «cartel», *kuartel* «cuartel», *kordel* «cordel», *pastel* «pastel», *kontrol* «control», *alkol* «alcohol», *korredor* «corredor», *pastor* «pastor», *pintor* «pintor», *selador* «celador», *kobrador* «cobrador».

Gaztelarazko *-dad* atzizkidun maileguak. Halakoen kasuan, mailegu berriak *-dade* formaz ikus daitezke mugagaberako zein singularrerako:⁴

- (2) *abilidade* «habilidad», *eletrisidade* «electricidad», *kalidade* «calidad», *kantidade* «cantidad», *karidade* «caridad», *komunidade* «comunidad», *terkedade* «terquedad».

Gaztelarazko *-ón* atzizkidun maileguak: halakoak *-oi* formaz ikus daitezke Getxoko euskararen, beste euskara askotan bezala, mugagabeen; mugatzailea hartzean, berriz, hautsi egiten da diptongoa: *patrò* [*pa.troi*] «patrón» → *patroyà* [*pa.tro.ya*], *balò* [*ba.loi*] «balón» → *baloyà* [*ba.lo.ya*] etab. Adibideak abs. mugagabeen:

- (3) *bagoi* «vagón», *baloi* «balón», *balkoi* «balcón», *bidoi* «bidón», *fanfarroi* «fanfarrón», *frontoi* «frontón», *kamioi* «camión», *kañoi* «cañón», *mojojoi* «mojón», *mejillón*, *patroi* «patrón», *pregoi* «pregón», *sermoi* «sermón», *takoi* «tacón», *txipiroi* «chipirón/calamar».

Gaztelarazko *-ión* atzizkidun maileguak: halakoetan *-iño* forma agertzen da singularrean zein mugagabeen. Adibideak ugari dira:

³ Gogoan izan, berezko azenturik (azentu lexikorik) ez duten hitzek, bakarka ahoskatzen direnean, talde prosodikoko azentua hartzen dutela azken silabaren gainean eta, hortaz, *materiala*, *kordela* edo *korredora* (abs. sing.) moduko hitzak, *materialá*, *kordelá* edo *korredorá* ahoskatuko direla, azken silaba hantaturik (Getxoko euskarako berezko ahoskeran, azentudun silabaraino gorantza joan den doinuaren ostean beherakada bat eginik). Talde prosodikoaren azentu hori ezkerrean zko azentu-marka bidez ispi-latuko dugu lanean (Hualde 1994n darabilten jokabidea hona ekarrita). Hortaz, esan berrien moduko adibideak, hemendik aurrera, honela: *materialà*, *kordelà*, *korredorà*. Eskuineran zko azentu-marka, berriz, hitzaren berezko azentua —azentu lexikoa— ispi-latzeko erabiliko dugu.

⁴ Gogoan izan Getxoko euskararen berdindu egiten direla forma mugagabea eta singularra bokalez bukatutako hitzetan, beste euskara batzuetan bokal-harmonizazio delakoa gertatzen den lekuan Getxon mugatzailea ezabatzen delako bokalez bukatutako izen-adjektiboetan (ikus Hualde 1992: 47). Adib.: *batuaz umea* / Getx. *umè*; bat. *herria* / Getx. *erri*; bat. *astoa* / Getx. *astò*; bat. *katua* / Getx. *katù*; Bizk. orok. *alabea* / Getx. *alabè*.

- (4) *diputasiño* «diputación», *ilusiño* «ilusión», *diskusiño* «discusión», *donasiño* «donación», *estasiño* «estación», *indesiño* «inyección», *jubilasiño* «jubilación», *komuniño* «comunió», *konbersasiño* «conversación», *konfesiño* «confesión», *komparasiño* «comparación», *pensiño* «pensión», *salbasiño* «salvación», *tensiño* «tensión», *telebisiño* «televisión» eta abar.

Horiatariko atzizkiez amaitzen ez diren gaztelerako hitz oxitonoak ere azenturik gabe ahoskatzen dira. Dakigunez, Getxoko euskaraz ez da mugatzailea ageri bokalez amaitutako hitzetan (bat. *katua*; Getx. *katü*, etab.), eta bai, ostera, kontsonantez amaitutakoetan (bat. *txakurra*; Getx. *txakurrè*);⁵ bukaeran *-in* edo *-il* dutenetan bus-tidura ageri da: *latiñè* «latín», *aprilè* «abril» (*-a* mugatzailea *-e* bihurtzen da ahosgune altuko bokalen —/i/, /u/— ondoan. Ikus Hualde (1992: 28). Adibideak abs. mugagabeen:

- (5) *alrebes* «al revés», *anis* «anís», *april* «abril», *arros* «arroz», *asul* «azul», *atabal* «atabal», *atun* «atún», *autobus* «autobús», *batel* «batel», *berdel* «berdel», *bos* «voz», *fiñ* «fino/a», *formal* «formal», *fusil* «fusil», *gas* «gas», *jerse* «jersey», *kaltzetin* «calcetín», *kapas* «capaz», *kinke* «quinque», *latin* «latín», *motor* «motor», *natural* «natural», *papel* «papel», *pare* «par», *plan* «plan», *pure* «puré», *sarten* «sartén», *total* «total», *tren* «tren», *txalet* «chalet», *txanpan* «champán». Gutxi gehiago aurkituko dira.

Gazteleraz azentua azken silaban eraman eta euskaraz azentua galtzen ez duten bi adibide aurkitu ditut: *edáde* «edad», eta *káfe* «café» (azken hau bereziki nabaria da, azentua galdu ez eta gainera gaztelerako kokalekua aldatuak duelako).

2.1.2. Mailegu proparoxitonoak

Halako maileguetan azentua gorde egiten da jatorrizko lekuan. Adibideak abs. mugagabeen:

- (6) *ánimu* «ánimo», *antipátikule* «antipático/a», *béspera(k)* «víspera(s)», *eskándalu* «escándalo», *espíritu* «espíritu», *fábrica* «fábrica», *jénero* «género (mercancía)», *kántiku* «cántico», *kilómetro* «kilómetro», *klínika* «clínica», *lástime* «lástima», *mákiña* «máquina», *médikule* «médico/a», *mekánikule* «mecánico/a», *méritu* «mérito», *músika* «música», *númeru* «número», *párroku* «párroco», *pelíkula* «película», *periódiku* «periódico», *plástiku* «plástico», *polítika* «política», *polítikule* «político/a», *pórtiku* «pórtico», *púlpitu* «pulpito», *teléfonu* «teléfono», *tráfiku* «tráfico». Ez dira asko gehiago aurkituko.

2.1.3. Mailegu paroxitonoak

Talde honetakoak dira mailegu gehienak; espero izatekoa da, gazteleraz gehien aurkitzen den azentuera hauxe denez gero. Euskaraz, mailegu hauen % 70ek jato-

⁵ Getxon, *a > e* bihurtzen da bokal itxien (/i/ eta /u/, ahosgune altuko bokalen) ondoan. Ikus Hualde & Bilbao (1992: 28).

rrizko lekuan gordetzen du azentua.⁶ Segidan doaz hauetako adibide batzuk. Orain arteko adibide sortak bezala, datozen hauek ere abs. mugagabea emango dira. Go-goan izan *-a* berezkodun formak *-e* bukaeradun bihurtzen direla singularrean (*artista* → *artiste*, *bandera* → *bandére*, *bóda* → *bóde*, etab.):

- (7) *anteóju* «anteojo», *aparátu* «aparato», *árbol* «árbol», *arránke* «arránque», *artista* «artista», *asúkre* «azúcar», *áuto* «auto», *ayuntaméntu* «ayuntamiento», *baliénte* «valiente», *bandéra* «bandera», *básu* «baso», *bisikléta* «bicicleta», *bí-sio* «vicio», *bóda* «boda», *bolandéra* «volandera», *bótu* «voto», *buélta* «vuelta», *dentísta* «dentista», *derétxo* «derecho», *deskonfiántza* «desconfianza», *diferénte* «diferente», *disgústú* «disgusto», *diskúlpa* «disculpa», *dróga* «droga», *eleméntu* «elemento», *endrédi* «enredo», *erretrátu* «retrato (‘argazki’), *kásik* «casi», *karretéra* «carretera», *kargaméntu* «cargamento», *karamélu* «caramelo», *kandéla* «candela», *kafekolétxe* «café con leche», *inportánte* «importante (‘harro’), *jitánule* «gitanol/a», *gitárra* «guitarra», *galérna* «galerna», *famili* «familia», *eskóla* «escuela», *komeniéntzi* «conveniencia», *konéju* «conejo», *kóntra* «contra», *kóntu* «cuenta (asunto), *lénte* «lente (gafa), *lentéja* «lenteja», *libru* «libro», *litro* «litro», *maléta* «maleta», *manéju* «manejo», *martillu* «martillo», *móda* «moda», *naránja* «naranja», *obediénte* «obediente», *óbra* «obra (‘konponketa, eraikuntza’), *págu* «pago», *serbésa* «cerveza», *sigárru* «cigarro», *sindikáto* «sindicato», *ténple* «temple (‘aldarte’), *térkole* «terco/a», *testaméntu* «testamento», *tortilla* «tortilla», *txirípa* «chiripa», *txitxárru* «chicharro (arrain mota), *txoríso* «chorizo», eta beste hainbat.

Gainerako % 30 azentugabe bihurturik entzun daiteke. Zehatzago esanik, maileru paroxitonoen % 18 jatorrizko azentueraz zein azentu gabe ager daiteke. Gainerako % 12 azentugabe bihurtu da. Hurrengo paragrafoetan doaz adibideak.

Jatorrizko azentueraz zein azentu gabe entzun daitezkeen maileru paroxitono batzuk:⁷

- (8) *akordu* (akórdu/akordu) «acuerdo (ocurrencia, memoria)», *antóju* «antojo (antojo)» / *antoju* (normalean ‘nazka’, baina entzun daiteke ‘antoju’ esateko), *arku* (árku/arku) «arco», *bandidu* (bandídu/bandidu) «bandido», *banku* (bánu/banku) «banco», *barberu* «barbero», *barku* «barco», *difuntu*

⁶ Ehuneko hauek, lan honetan zehar eskaintzen diren kopuru guztiak bezala, Hualde & Bilbao (1992) laneko eranskineko hitz-bildumako adibideak zenbatzetik datoz.

⁷ Erdal azentuera gordetzeak edo galtzeak adiera aldetiko ezberdintasunen bat ispila zezan espero zitekeen behar bada, baina halako kontrasteen adibide gutxi aurkitu dut, eta izaera apur bat berezikoak dira. Hauek dira adibideak: *parájel/paraje* (azentu prosodikoz, *parajé*). Azentudunak ‘toki’ esan nahi du; azentugabeak, ‘hurbil’. Beste adibide bat: *antóju/antoju* (azentu prosodikoz, *antóju*). Azentudunak ‘nahikeria’ esan nahi du; azentugabeak, ‘nazka’ zein ‘nahikeria’. Hirugarrenik, halako adiera-banaketaren zantzua du *santu* hitzak: *santu* (*santiu*) azentugabea ‘santo (kristau eredugarria)’ da beti, baina *sántu* azentuduna kristau eredugarria nahiz liburuetako irudia izan daiteke. Izaera apur bat berezikoak direla diot hiru adibideetan erdal azentuaren kokalekua gordetzea bat datorrelako erdal adiera(k) ere gordetzearekin. Hau da, norberak esango luke azentugabe bihurtutakoek egokitze-bide bat egin dutela eta zaharra-goak izan behar dutela; azentudun adibideak, berriz, «birmailegatu» egin direla garai hurbilagoan, erdal forma eta adiera berdin gordeta. Kasu horiek kenduta, aurkezten diren adibideetan azentuera batuz zein besteaz esanahi bera adierazten dela ulertu behar da.

«difunto», *diktadura* «dictadura», *duda* «duda», *engañu* «engaño», *enkargu* «encargo», *ermita* «ermita», *erramu* «ramo», *fama* «fama», *freskule* «frescola», *gastu* «gasto», *grasi(k)* «gracias (menos mal)», *jota* «jota (dantza)», *justisi* «justicia», *justu* «justo (ecuánime; ceñido; exacto)», *kalentura* «calentura (fiebre)», *karta* «carta», *konseju* «consejo», *kontratu* «contrato», *koru* «coro», *lata* «lata», *miseri* «miseria», *notisi* «noticia», *ordu* «hora», *paráje* «paraje (lugar)» / *paraje* «paraje (cerca)», *pasu* «paso», *portu* «puerto», *probetxu* «provecho», *saku* «saco», *salu* «salto», *santu* «santo», *sepultura* «sepultura», *tapa* «tapa», *temperatura* «temperatura», *toreru* «torero», *tratu* «trato», *txapa* «chapa», eta beste batzuk.

Beti azentugabe⁸ ageri diren mailegu paroxitono batzuk:

- (9) *apellidu* «apellido», *area* «arena», *armosu* «almuerzo ('gosari')», *berde* «verde», *besegu* «besugo (arrai mota)», *biaje* «viaje», *boltza* «bolsa/o», *errekadu* «recado», *estorbu* «estorbo», *fásil* «facil», *freskure* «frescura ('freskotasan')», *gerra* «guerra», *gobernu* «gobierno», *jusgedu* «juzgado», *kamiño* «camino (carretera)», *karu* «caro», *kasiñu* «caso (atención)», *koitxedule* «coitado/a», *koka* «coca (ikatz mota)», *koñetalu* «cuñado/a», *piku* «pico», *plasa* «plaza», *sapo* «sapo», *serbitzo* «servicio», *torre* «torre», *tripe* «tripa», eta beste batzuk.

Adibide hauen erakoak dira gazteleraz *-ía* bukaera azentuduna duten hitzen maileguak (*romería*, *categoría* etab.). Halako hitzetan badirudi Getxoko euskaran eza-guna dugun hitz bukaerako hiatoa deuseztatzea gertatzen dela, azken bokala desagertuaz, singularrez zein mugagabez:

- (10) *erromeri* «romería», *kategori* «categoría», *loteri* «lotería», *notari* «notaría», *sakristi* «sacristía», *komisari* «comisaría», *pasteleri* «pastelería».

Ez dira adibide hauekin nahastu behar *-ia* azentugabeaz (diptongoz) bukatzen diren adibideak (*noticia*, *justicia* etab.), hauek ez dira-eta kasu guztietan azentugabe bihurtzen: *notísi* edo *notisi* «noticia», *justísi* edo *justisi* «justicia», *miséri* edo *miseri* «miseria».

Azkenik, badira paroxitonoen mailegutan ere jatorrizko azentuera gorde ez, baina azentua beste silaba batera mugitu duten hitzak; aurreko silabara, zehatzago esanda:

- (11) *móradu* (edo *moradù*) «morado», *pátata* «patata», *táberna* edo *tabérna* «taberna», *támañu* «tamaño», *tómate* edo *tomáte* «tomate», *sáborra* «zaborra (itsasoak ekarritako erregaia)»

Adibide multzo honetan sar daitezke, ziurrenik, gaur egun gazteleraz oxitonoak diren *bastón*, *balcón* eta *sazón* hitzen maileguak.⁹ Hiruren kasuan azentua lehen sila-

⁸ «Beti» moduko kalifikazioak eranstea kosta egiten da. Zerrenda honetan aipatzen diren hitz batzuez ezinezkoa da ziurtatzea getxoztarren batek ez duela sekula esango, adibidez, *gobérnu* edo *errekádu*. Hortaz, «beti» hori hartu behar da, nolabait esateko, ohiko azentuera gisa Getxoko hizkeran. Aurreko zerrendari ere dagokio ohar bera: hautazkotzat eman dira bi azentuerak aurreko zerrendan, baina ziurrenik ez lirerateke inoiz bi hiztun bat etorriko adibide guztien hautazkotasanaz.

⁹ Hiru hitz horietan, iraganean azken bokal baten —eta, beraz, azken silaba baten— ezabaketa gertatu dela pentsa daiteke.

ban entzun daiteke, aukeran *bástoi* eta *bálkoi* adibideetan (*bastói* eta *balkói* ere entzun daitezke, betiere diptongoz), eta beti lehen silaban *sásoi* adibidean (hau mailegu zaharraztat har daiteke). Adibideak abs. mugagabez aipatu dira; forma singularrak *bás-toya*, *bálkoya* eta *sásoi* edo *sásoye* dira.

2.2. Mailegu zaharrak

Mailegu zaharretan badirudi jatorrizko azentuera kasu gehiagotan galdu dela. Asko dira, hala ere, jatorriko (gaztelera zaharreko edo latineko) azentu-kokagunetzat eman daitekeena gorde dutenak. Segidan doaz bildu ditudan adibideak.

Jatorriko azentuera gordeak diruditen mailegu zaharrak:

- (12) *akúllu* (< lat. *aculeus*; FHV)
alkóndara (< errom. [*< arab.*] *alcandora*; FHV)
(d)ámistiku (lat. *dominus tecum*)
askóra (< lat. *asciola*; Mitx. [Arbelaitz 1978], EHHE)
ántzar (< errom. *ansar*; Mitx. [Arbelaitz 1978])
déndra (lat. arrunt *tenda*; gazt. *tienda*)
dénpora (< lat. *tempora*; FHV)
doméka (< lat. *dominicus dies*; gazt. *domingo*)
eskilléra (lat. *escalaria*, gazt. *escalera*)
eskóla (lat. *schola*; gazt. *escuela*)
espártin (gast. *esparto*, kat. *espardeña*)
espíllu (lat. *speculu*)
estárta (< errom. *estrata*; FHV)
gastélu (lat. *castellu*)
géla (< lat. *cella*; FHV)
gúre (< lat. *gula*; OEH)
góna (errom. *gonela*; OEH)
iñusénte (gast. *inocente*)
iséra (< arabismoa, errom. bidez iritsia; OEH)
itxúre (< gast. *hechura*; FHV; EHHE)
kámare (< errom. *cambra*; FHV)
kánpo (gast. *campo*)
kinpúlla (< lat. *cepulla*; FHV)
kiñu (gast. *guiño*)
kollára (lat. *cocliaria*; aragoieraren bidez; OEH)
kóntu (gast. *cuento*)
kóxo/le (gast. *cojo*)
lándara (lat. *plantanea*?)
léku (lat. *locu*)
libru (lat. *libru*, gast. *libro*)
makílla (< lat. *bacillu*; FHV; EHHE)
máisu (gast. *maestro*)
miskínu (gast. *mezquino*)
místo (gast. *mixto* 'pospolo')

módu/modu (lat. *modu*)
órtulortu (lat. *ortu*)
óste (< lat. *post*; FHV; EHHE)
pañélu (gazt. *pañuelo*)
pásu/pasu (lat. *passu*)
písti (lat. *bestia*)
puxíke (< lat. *uessicca*; FHV)
sapáta (gazt. *zapato*)
sapátu (< lat *sabbatu*; Mitx. [Arbelaitz 1978])
sékule (lat. *saecula*)
síñu (lat. *signu*)
téllaltálla (lat. *taglia*)
titéra (lat. *digitale*)
yántza (errom. *chanza*, gazt. *danza*)

Adibide berezia da zerrendatu ez dugun *légusulléngusiñ*, euskal hitzaren eta mailguaren elkarketa denez gero. Hona hemen jatorrizko azentuera galdu duten maileguak (azentugabe bihurtu direnak):

- (13) *abosill* (gazt. *alguacil*)
akabu (lat. *ad cabu*)
alkate (< gazt. *alcat* [< arab.]; FHV; EHHE)
area (< lat. *arena*; FHV; EHHE)
armosu (gazt. *almuerzo*)
bake (< lat. *pace*; FHV; EHHE)
berba (lat. *verba*)
boltza (gazt. *bolsa*)
diru (lat. *denariu*; Trask 2008)
errege (< lat. *rege*; FHV; EHHE)
erregiña (< lat. *regina*; Trask 2008; FHV; EHHE)
errieta (< gazt. *reyerta*; Trask 2008)
errota (< lat. *rota*; Mitx. [Arbelaitz 1978])
espata (< lat *spatha*?; Mitx. [Arbelaitz 1978])
firu (< lat. *filum*; Trask 2008)
gause (< lat. *causa*; FHV; EHHE)
gorputz (< lat. *corpus*; FHV)
gorroto (< lat *corruptu*, gazt. zah. *corroto*; Trask 2008; EHHE)
iko (< lat. *ficus*; Mitx. [Arbelaitz 1978])
kanpai (lat. arr. *campana*, gazt. *campana*)
kare (< lat **cale*; FHV)
karreju (gazt. *carrejo*)
kate (< lat. *catena*; Trask 2008)
katu (< lat. *catu*; Trask 2008)
kerixe (< lat. *ceresia*; OEH)
kolko (< gr. lat. *colpu*; Mitx. [Arbelaitz 1978])
kordel (gazt. *cordel*)
koroa (< lat. *corona*; FHV)

koxi, koxu (gazt. *coger*)
laxu (< lat. *laxu* errom. bidez; Trask 2008)
lege (< lat. *lege*; FHV)
lisu (gazt. *liso*)
lora (< lat. *flore*; FHV)
luma (< lat. *pluma*; FHV)
mesede (< gazt. zah. *merced* [< lat. *merx*]; Trask 2008; EHHE)
mundu (lat. *mundu* edo gazt. *mudo*; Trask 2008)
mutu (< lat. *mutu*; Trask 2008)
orma (< errom. *horma* [< lat. *forma*]; FHV; EHHE)
pernill (< gazt. *pernil* [< lat. *perna*])
piñu (< lat. *pinu* edo errom. *pino*; Trask 2008)
pisu (lat. *pessu*; gazt. *peso*)
porru (< lat. *porru* edo haren errom. eratorritik; Trask 2008)
salda (lat. *calida*?)
serra (lat. *serra*)
siku (lat. *siccu* edo gazt. *seco*)
soka (< lat. *soca*; Trask 2008)
sokorru (gazt. *socorro*, adiera aldaketaz)
soru (< lat. *solu*; Mitx. [Arbelaitz 1978])
txipiroi (< gazt. *jibion* < gazt. zah. *xibia* < lat. *sepiola*; Trask 2008)
yeltzo (< gazt. zah. *ye(l)su*; FHV)

Jatorrizko azentuera gordetzen dutela zein ez dutela, mailegu zaharretan uniformetasun handiagoa ikusten da: hitz berak ez du erakusten azentuera posible bat baino gehiago, mailegu berriagoetan gertatzen denaren kontrara.

Badirudi erlijioarekin lotuta sartu ziren maileguetan are sarriago ikusten dela azentua galtzea:

- (14) *abade* (< lat. *abbate*; FHV; EHHE)
abendu (< lat. *aduentu*; FHV; EHHE)
angeru (< lat. erlij. *angelu*; Trask 2008; EHHE)
arime (< lat. *anima*; FHV)
bedeinketu (< lat. *benedicere* + eusk. *-atu*; FHV; EHHE)
birjin (edo *birjine*) (lat. *virgine*)
borondate (< lat. *uoluntate*; FHV)
dotriña (gazt. *doctrina*)
elixe (< lat. *ecclesia*; Trask 2008; EHHE)
fede (< errom. *fede* [< lat. *fide*]; Trask 2008; EHHE)
garisume (gazt. *cuaresma*)
inpernu (lat. *infernu*)
intzentzu (gazt. *inciensu*)
kurtze (< lat. *cruce*, errom. bidez; Trask 2008)
madariketu (edo *madáriketu*) (< lat. *maledicere* + eusk. *-atu*; FHV; EHHE)
mesa (lat. *missa*)
pekatu (< lat. *peccatu*; Trask 2008)
seru (< lat. *caelu* errom. bidez; Trask 2008; EHHE)

- (15) Azentua gorde dutenak:
demóniño (gazt. *demonio*)
mirári (ez da herriaren ahotan sarri entzuten; sarriago *milágru*)
kandéla (lat. *candela*, gazt. *candela*)
- (16) Mailegu zaharren kasuan ere, mailegu batzuetan azentua jatorrizkoari susma dakiokkeen kokagunetik aldentuta ageri da:
sásoi (< errom. *sazon*; Mitx. [Arbelaitz 1978])
íngiru (< lat. *in gyro*; FHV; EHHE)
makállau (< ziurrenik gazt. zah. *bacallao*; Trask 2008)
orío (lat. *oleu*; eusk. orok. *olio*, ziurrenik errom. zah. *olio*-tik, baina Getx. formak *l* > *r* aldaketa erakusten du; EHHE).

2.3. Mailegatutako aditzak

Aditz mailegatuek askoz ere portaera batuagoa erakusten dute azentuaren koka-guneari dagokionez bestelako hitzek baino. Badirudi erdal infinitiboak direla aditzak mailegatzeko hartu diren formak. Jatorrizko hizkuntzan —gaztelera gehienik— infinitiboetan azentua ia beti azken silaban erortzen denez gero (*cantar*, *comer*, *dormir*), euskarara iragan diren formak azentugabe ageri dira, maileguzko izen-adjektibo oxitonoen kasuan ikusi dugun bezala. Ezberdintasun formalak beste alde batetik datoz: gaztelerako *-ar* aditzak *-a* bukaera hutsez ageri dira Getxoko euskaran (*usar* → *usà*; *doblar* → *doblà*, etab.); *-er* eta *-ir* bukaeretakoak, berriz, *-u* bukaeraz ageri dira zaharrrak (*freír* → *frijù*; *sostener* → *sostenù*, etab.) eta *-idu* bukaeraz berriak edo bat-bateko mailegu direnek (*inprimidù*, *insistidù*, *korrejidù* etab). Adibideak:

- a) Bi silabako *-ar* bukaeradun aditz mailegatuak:

- (17) *baxa* «bajar», *altza* «alzar ('altxatu')», *dobla* «doblar», *fia* «fiar(se)», *fuma* «fumar», *gasta* «gastar», *libra* «librar», *kanta* «cantar», *karga* «cargar», *kantza* «cansar(se)», *kexa* «quejar(se)», *kiña* «quiñar¹⁰ ('zirikatu')», *konta* «contar», *olga* «jugar», *paga* «pagar», *pasa* «pasar», *pinta* «pintar», *pisa* «pesar», *proba* «probar», *sobra* «sobrar», *solta* «soltar», *tapa* «tapar», *tarda* «tardar», *traga* «tragar», *topa* «topar ('aurkitu')», *usa* «usar» ('erabili edo ohitu'), eta beste batzuk.

Silaba biko *-ar* jatorrikoen azentu-galeran salbuespen dira *sálta* «saltar», *bóta* (gazt. *botar* jatorria onartzen badiogu) eta *kanbía* «cambiar» (azken hau, beharbada, erdal diptongoa hausteko beharragatik). Gainera, azentua lehen silabara «mugiturik» entzuten dira lehen adibide biak. Bestalde, salbuespen orokor dira hiru silabatik gorako maileguak, azken aurreko silaban daramatelako azentua guztiek:

- (18) *aguánta* «aguantar», *akába* «acabar», *akórda* «acordarse», *amárra* «amarrar», *armósa* «almorzar ('gosaldu')», *arrégla* «arreglar», *barrúnta* «barruntar ('susmatu, sentitu')», *errésa* «rezar», *gobérna* «gobernar ('zaindu —gau-

¹⁰ Real Acemiaren hiztegian amerikar jatorriko aditz gisa ageri da *quiñar*.

zak eta abereak—’), *koménta* «comentar», *konbérsa* «conversar», *konpára* «comparar», *prepára* «preparar», *protésta* «protestar», eta beste batzuk.

b) *-er* jatorriko maileguak:

(19) *atrebu* «atreverse», *defendu* «defender», *detenu* «detener», *eskoju* «escoger», *entenu* «entender», *korru* «correr (‘gauza bat higitzea’), *koxi* edo *koxu* «coger», *ledu* «leer», *mobu* «mover», *obedu* «obedecer», *respondu* «responder», *sostenu* «sostener». Hauetako batzuk *-idu* bukaeraz ere entzun daitezke: *atrebidu*, *defendidu*, *detenidu*, *sostenidu*, *mogidu* adibidez. Bestalde, *-idu* bukaeraz soilik entzun daitezke besteren batzuk (berriak edo bat-batekoak ohi dira): *konbensidu*, *desaparesidu*, *rekonosidu*, *resolbidu*.¹¹

c) *-ir* jatorriko maileguak:

(20) *abrosu* «aburrir (‘aspertu edo nekarazi’), *eleju* «elegir», *eskribu* «escribir», *priju* edo *friju* «freír», *kunplu* «cumplir», *repartu* «repartir», *sufriu* «sufrir», *segu* «seguir», *medu* «medir», *eskribu* «escribir». Badira, bestalde, *-idu* bukaeraz esaten diren *-ir* maileguak (berriak edo bat-batekoak): *diskutidu*, *eridu* «herir», *esijidu* «exigir», *fundidu*, *inprimidu*, *konsegidu*, *sentidu*, *serbidu* eta beste. Hau da, badirudi *-ir* saileko mailegu berrieke ez dela emankorra *-idu* > *-u* laburketa. Horiez gain, aipatu ditugun *-u* forma batzuk ere *-idu* eran entzun daitezke: *segidu*, *kunplidu*, *prijidu*, adibidez.

d) Maileguzko oinarria dute *-tu* bukaerako aditz batzuek. Berez, *-tu* bukaeradun aditzak euskal aditzak izaten dira, *-tu* atzizkia bera sortzez kanpokoa bide den arren (*artu*, *galdu*, *sartu*, *ostu* etab.). Baina aditzok oinarri gisa duten osagaia, batzuetan, maileguzkoa da: *berdetu* «verdecer», *freskotu* «refrescar», *kargutu* «darse cuenta», *lasatu* «aflojar», *siketu* «secar», *tiretu* «estirar», *tristetu* «entristecer(se)», *yokatu* «jugar». Adibideok oinarri azentugabea dutenez gero (Getxon behintzat azentugabeak dira *fresku*, *kargu*, *triste* eta gainerako oinarriak) aditza bera ere azentugabea da. Hiru azentudun bildu ditut: *kónturetu* «darse cuenta», *bedéinketu* (edo *bedeinketu*) «bendecir», *madárikatu* (edo *madáriketu*) «maldecir». Hiru azentudunotan ez da, hala ere, aditz izaerak eragindako azentu-galera edo bestelako aldaketarik ageri.

Laburbilduta, adibideok erakusten dutena da ez dela alderik ageri, aditz mailegatuena kasuan, azentuaren iraupen edo galeraren aldetik mailegu zahar eta berriagoen artean: *olgà*, *altzà*, *barrínta*, *armósa* (zaharrek) nahiz *usà*, *kiñà*, *protésta*, *amárra* (berriek) berdin jokatzeko dute azentuaren kokagunearen aldetik.

2.4. Euskarazko hitz azentudunak

Lan honetan, orain arte maileguei begiratu diegu eta ikusi dugu zein kasutan galten duten jatorrizko hitzeko silabaren bateko prominentzia edo nola hura gordetzen

¹¹ Badago *opetzu* edo *opetzi* ‘ofrecer’ aditza ere, ikus daitekeena euskal aditz gisa (*opa* + *etsi*) edo beharbada mailegu gisa (*ofrezidu* batetik).

duten, azentu eran. Beste lan batzuetan aipatuta daude azentuen sortzaile diren beste testuinguru batzuk. Azentu-emaile diren eragiketa morfologikoak izaten dira. Zehatz aipatuta, hitzak azentudun bihurtzeko ahalmena dute hitz-elkarketak, eratorpenak eta izen-adjektiboen flexioak. Ez ditugu eragiketa horiek landuko lan honetan —jo beza irakurleak Hualde (1989), Hualde & Bilbao (1992) eta Zuazo & Goiti (2016) lanetara horren berri izateko—, baina labur azalduta esan daiteke, eragiketa morfologiko horien bitartez oinarri bati beste morfema bat eranstea, konbinazioa azentudun bihurtzen dela, baldin eta erantsitako morfema azentuduna edo azentu-emailea bada (adibidez, *artò* abs. sing. vs *ártok* abs. pl., pluralaren morfemak azentu-emaileak direlako, Getxon eta beste euskara askotan). Elkartutako bi morfemak oinarriak direnean ere (alegia, hitz-elkarketan) bihurtzen da konbinazioa azentudun Getxon, kasu gehienetan (*arto + sati* → *artósati* ‘pertsonea gibel-handia’).

Hemen eragiketa morfologiko horietan sartzen ez diren euskal hitz azentudunak ikusiko ditugu. Gutxi dira horrelakoak, azentudun gehienak aipatu berri ditugun eragiketaz edo maileguaren azentua gordez dira-eta azentudun. Lehenago aipatu dugun bezala, 70 pasa batu ditut; hain zuzen ere hemen doazenak:

- (21) *abárka*, *akúllu* (akuilu), *améntal* (amantal), *arráusi*, *árrutza* (arrautza), *árte*, *ártesi* (guraize), *ásau* (urrun), *átze*, *áurre*, *áusi* (zaunka), *áyes* (agi danez), *bárre*, *bekóki* (kopeta), *bélarri*, *berákatz* (baratxuri), *béste*, *bílle* (bila), *bítxi* (gauzatxo polita, jostailu), *égo* (hego), *égi* (egia), *egúski*, *elástun* (eraztun), *énda* (arraza), *éra* (era), *erréka* (erreka), *espána* (ezpain), *gáne* (gain), *gángil* (ganoragabekoa), *gánora* (funts), *górantzi* edo *gorántzi* (eskumuin), *górta* (korta), *íntxor* (intxaur), *inúrrri* (txingurri), *irrintzi*, *kárra* (korrika), *karrámarro*, *katíllu*, *kútxa*, *láya* (*laia*), *lánda*, *lapíko* (eltze), *madári* (udare), *mái* (mahai), *mallúki* (marrubi), *mámarro* (zomorro), *matráil* (masail), *nagósi*, *óndo*, *órdu*, *órrotz* (orratz), *osála* (txerri janaria), *óste*, *otzára* (zaran), *sági* edo *sagi* (zahagi), *sálle* (sail), *sarrántza* (txarrantza), *subéte* edo *suéte* (sukalde), *súnda* (sunda), *tálo*, *txístu*, *úkondo*, *úrdai*, *úsaba* (ugazaba), *yarámon* (jaramon), *txirpillóta* (tximeleta), *yústuri* (tximista).

Zerrenda horretan izenak dira ia guztiak (gehi adjektibo, aditzondo eta mugatzaile funtzioko bakan batzuk). Sartu egin dira elkartu edo eratorri izaera susma dakekeen hitz batzuk (adibidez, *intxor*, *karrámarro*, *subéte*, *úrdai*, *úsaba*). Bestalde, ez ditugu sartu adierazkortasun bereziko testuinguruetan erabili ohi diren euskal hitz batzuk. Hurrengo atalean aipatuko dira eta beste 20 bat dira. Aditzik ere ez dugu sartu zerrenda horretan, eta hemen doaz:

- (22) *asárratu* (haserretu), *érein* (erein edo eragin), *éron* (eraman), *érontzi* (erantzi), *ikératu* (ikaratu), *iribiotu* (irabiatu), *iríki* (irakin), *itxédon* (itxaron), *ixertu* (itxartu), *yáusi* (erori), *yáyo* edo *yayo* (jaino).

Baliteke (21) eta (22) sail horietako hitz batzuen azentuduntasuna azaltzeko elkarketa edo eratorpen izaera aurkitu ahal izatea (*érein*, *érontzi* etab.; horregatik ez da aipatu *irékatzi* ‘irakatsi’), baina ez da agerikoa eta, hortaz, berez dira azentudun, oraingoz dakigunagatik.

2.5. Hitz azentudun adierazkorrak

Bada hitz azentudunak ageri diren azken eremu bat aipatu ditugunez gain (maileguak, elkartuak, eratorriak, zenbait flexio-atzizkidunak): balio adierazkorra ikus daiekeen hitzetan sarri ageri dira hitz azentudunak. Esate baterako, honelakoak:

- (23) Esklamazio batzuk: *áupa*, *ái ene*, *áiko* (kontxo), *ára* (begira), *árre*, *áutzi* (tori), *biénke* (benetan), *éne* (kontxo), *érdu* (hator, zatoz), *ía* edo *ía ba* (ea ba), *kóntus* (kontuz), *listo* (kitto), *májo* (ederki), *óspa* (alde —egin—).

Azentuera hau ez duten esklamaziozko hitz gutxi batzuk ere badira: *gero* (adib. *Kóntuz gerò!*), *kitu* ‘kitto’ (adib. *Yón dire ta kitù, bake sántu!* ‘Joan dira eta kitto, bake santua’), *sapi* ‘zapi’ (adib. *Sapì katì!* ‘Zoaz (hemendik) katua!’).

- (24) Haur hizkerako hitzak. Balio adierazkor berezia dutela esan daiteke, haurrei hitz egitean erabiltzen den zenbait azentudun hitzez ere: *kúku*, *lóló*, *ápa*, *ápatxe* (esklamaziozkoetan ere aipatua), *txálo-pintxálo*, *txétxe* (‘sein, haurtxo’).

Beharbada hitz adierazkorren eremuan sartzekoak dira burlazko edo irainezko hitz batzuk ere: *pápau*, *kókolo*, *tónto* mailegua.

Adierazkortasun bereziko hitzen begirada honetara ekarriko dugu azentua espero ez den lekuan erakusten duen beste hitz mota bat: pertsona-izen bereziak. Nabarrena da Getxoko euskaldunen ahotan —eta beste hainbat inguruetakoenean— kristau-tradizioko izenak (*Anton*, *Maria*, *Jose*, *Jesus*, *Dolores* eta beste asko) lehen silabako azentuz ahoskatzeko dagoen joera: *águstín*, *ánton*, *bátiste*, *dólores*, *jábier*, *júlian*, *nikolas*, *rámon*, *piéda(d)* eta beste entzun daitezke, adibidez. Deigarri egiten da ahoskera hau, besteak beste, kasu askotan erdaraz azentua beste muturrean doalako. Ahoskera hau euskaraz hitz egitean erabiliko dute Getxoko hiztunek. Gazteleraz hitz egitean, ordea, erdal azentuera erabiliko dute (*antón*, *dolóres*, *agustín*, *piedad* etab.). Badira, ordea, halako izen batzuk gazteleraz hitz egitean eta euskararen eremu osoan lehen silabako azentuz esaten direnak: *jóse*, *jésus*, *mári*. Azentua izenaren hasieran kokatzeko joera hau bat dator hitz adierazkorren adibideetan ikusi dugunarekin eta, hortaz, hasierako silaban azentua ezartzea adierazkortasun-marka modukoa izan daitekeela pentsarazten du. Azentu hau ez litzateke, horrela ikusita, morfologiako eragiketa bategi gidatutakoa, ez eta maileguetako jatorrizko azentuaren kokalekuak eragindakoa. Ikuspegi hau sendotu egiten da ikusirik *Dónjuan* moduko ahoskerak entzun daitezkeela (*Don Juan* hau Getxoko apaiz bat zen); alegia, ikusirik lehen silabako azentu hori ez zaiola izenari berari ezartzen, ezpada esakunearen lehen silabari. Gaztelaniako osagaiduna den beste adibide bat ere badu entzuna, esklamazio arlokoa: *cúidau gerò!* (edo eusk. *kóntuz gerò!* / *gazt. ojo (con eso)!*). Beste horrenbeste suma daiteke goian hitz adierazkorren adibideetan ikusi dugun *ái enè!* esklamaziotik kanpo entzuten deanean *ene* hitza (izenordaina): bakarka esanik, *éne!* ahoskatzen da, azentua lehen silaban duela. Era horretara begira dakiok *ára!* esklamazioari ere: izatez toki-adizlaguna dugu (*hona*, *horra*, *hara* sailekoa), eta Getxon azentugabea da, bai adizlaguna eta bai adlatibo atzizkia (*onà!orrà!arà yón dirèz* ‘hona/horra/hara joan dira’), baina lehen silabako azentuz ahoskatzen da esklamazio funtzioan. Adierazkortasun-ezaugarri dirudien azentu hori, horrela ikusita, esaldien intonazio arloko ezaugarria izan liteke.

Deiturek, ordea, beste alde batetik jotzen dute. Ez dugu erdal pertsona-izenetan ikusi dugun azentu lehenkaria ikusten deituretan. Euskalkia hitz egiten dutenek aipatu berri dugun joera dute erdal izenei jatorrizko azentuera eraldatzeko, baina alderantziz jokatzeko dute deituren kasuan: euskal deiturak erdal azentuz (paroxitono bihurturik) ahoskatzeko joera da nagusi, erabatekoa ez bada: *Goicoechéa*, *Madariága*, *Beascoechéa*, *Cortabitárte*, *Menchacatórre* eta beste hainbat ahoskatzen diren era ez dator bat Getxoko euskararen gainerako hitz motetan ikusi ditugun azentu-joerekin. Joera horien arabera hirurotako bat esperoko genuke: edo hitz elkartuen arauaren arabera kokatzea azentua (lehen osagaiaren silabaren batean; adib. *Goikó(e)txe(a)*), edo azenturik gabe ahoskatzea izena (*Goiko(e)txè(a)*) leku-izen askoren moduan (ikus hurrengo paragrafoak), edo, beharbada, hitz adierazkor tankean ahoskatzea (erdal pertsona-izen asko bezala), azentua lehen silaban dutela (*Góiko(e)txe(a)*).

Getxoko bertako baserri-izen batzuei begiratuz gero, azentuera-arau horien arabera ahoskerak aurkitzen ditugu sarri (bai erdal tankerako ahoskerak ere). Esaterako *Maidagan(e)* toki-izenetik *Maidanè* baserria dugu; (*Sarri*)*beaskoetxea* izenetik (Gorrotxategi 2010) *Beskotxè* baserria dugu (genuen); idatzi zaharretako *Dendariena* baserriari herriak *Dendariñè* deitzen zion; *Moreaga* baserriari, *Moreà*; *Mimenaga* izenekoari, *Mimenà*; erdal izeneko *Villaverde* baserriari ere *Billaberdè*, azentugabe gisa, euskal izen asko bezala; Algorta auzoko *Tellaetxe* izen elkartudun baserriari, berriz, *Tálletxe*; ildo beretik, *Zientoetxe* baserriari, *Ziéntotxe*; *Jauregi* baserriari, *Yáuri*, eta abar. Lanketa gehiago merezi duen eremua da baserri-izenen eta toki-izenen azentua, oro har.

Izen berezien berri emate hau —eta lan hau— bukatzeko, herri-izenak ere aipatuko ditugu. Haien kasuan ere euskalkiko azentuera ez dator bat gaztelerakoarekin, herri-izen gehienak azentu gabeko hitz gisa ahoskatzen direlako. Getxo inguruko herri batzuk honakoak dira erdal ahoskeraz esanda (adierazirik doa azentuaren kokalekua): *Gétxo*, *Berángo*, *Sopelána*, *Barríka*, *Urdúliz*, *Lejóna*, *Erándio*, *Munguía*, *Laukíniz*, *Gatika*, *Butrón*, *Barakáldo*, *Portugaléte*, *Sondika*, *Lújuá*. Bertoko euskaraz hitz egiten duen getxoztar batek honela ahoskatuko ditu «Nora zozaz?» galderari erantzun behar badio (adlatiboan aipatuko ditugu, beraz, hitzaren azentugabetasuna ondo nabaritu dadin): *Getxorà*, *Berangorà*, *Sopelarà*, *Barrikerà*, *Urduliserà*, *Leyoarà*, *Erandiorà* (edo *Erandíora*), *Mungirè*, *Laukiserà*, *Katikerà*, *Butroirè*, *Barakaldorà*, *Port(u)alterà*, *Sondikerà*, *Loyurè*. Hau da, azentugabeak dira izen horiek guztiak, eta bukaerako azentua aipatua dugun azentu prosodikoa da, talde fonologiko guztiek Getxon azken silaban hartzen dutena. Badira, bestalde, euskaraz ere azentudun diren herri-izen batzuk: *Aréata* (*Las Arenas*), *Bílbo*, *Pléntzi*, *Santúrtzi*, *Séstao*; eta ahoskera bat baino gehiagoz entzun daitezkeen batzuk: *Erandiò*/*Erandío*, *Deriò*/*Derío* (hiztunak diptongoz ala gabe ahoskatzearen arabera).

Ezin daiteke «euskal» ahoskerarik edo azentuerririk entzun edozein herri-izenekin, ordea: euskal eran ahoskatzen dira auzo herriak, edo behintzat auzokotzat hartzen direnak; bertakoentzat erreferentzia diren herriak, azken batean. Badira inguru horretatik kanpo ere getxoztar batek sarri entzun edo aipatuko duen herririk, eta halakoentzat ere bertako ahoskera dago. Hemen batzuk: *Gernikè* (*Gernikerà*), *Lekeitiò* (*Lekeitiorà*), *Lesamà* (*Lesamarà*), *Durangò* (*Durangorà*), *Berméo* (baina *Bermeorà*),

Mondragón (Mondragoirè), Bitori (Bitorirè), Pamplonà (Pamplonarà), Sánsebastian (Sánsebastianerà), Riojà (Riojarà), Madrillè (Madrillerà), Parisè (Pariserà),¹² Erromà (Erromarà), Frantzì (Frantzirè), Inghlaterra (Inghlatterarà). Gainerako izenak gaztelar azentueraz entzungo dira: *Arrigorriàgara, Murgíara, Otxandiánora, Órora, Renteríara*, etab., eta *Búrgojera, Salamáncara, Itáliara, Alemániara, Benesuélara, Améri-kara* etab.

Adibide hauetatik atera daitekeena da toki-izenek izen arruntek betetzen dituzten azentuzko arau beren arabera hartzen dutela azentua, betiere hiztunek beren unibertsoko izen gisa ahoskatzen badituzte. Pertsona izenek, berriz, azentuera berezia erakusten dute, lehen silaban azentua daramatela (edo joera dutela, behintzat), beste mota batzuetako hitz adierazkorren antzera.

3. Laburbilketa

Lanean berezko azentua —azentu lexikala, morfema-konbinazioz sortu gabea— duten hitzei begiratu zaie, lau multzotan antolatuta: mailegu berriak, mailegu zaharrak, aditz mailegatuak, euskal jatorriko hitz azentudunak. Multzo guztien adibide sorta ona aipatu da, eta ez da adibide askoz gehiago aurkituko kasu batzuetan (esaterako, euskal hitz bakun azentudunen adibideak). Honela ikus daitezke, begirada batean, esandakoak:

— Mailegu berrien azentua (gaztelania jatorri):

- Erdal oxitonoen emaitza: mailegu azentugabea (adib. *kordelà, abilidadè, baloià, diputasiñò, autobusè*). Adibide bereziak, azentua galdu ez dutelako: *edáde, káfé*.
- Erdal proparoxitonoen emaitza: mailegu azentuduna (adib. *ánimu, jénero, kántiku* etab.). Adibideak ez dira asko.
- Erdal paroxitonoen emaitza: gehienetan (% 70), azentuduna (adib. *bolandéra, erretrátu, libru, lénte* etab.). Azenturik gabe edo azentuz entzun daitezke batzuk (adib. *bánku, ermíta, kalentúra, kóru*). Azenturik gabe beti beste batzuk (adib. *apellidù, areà, armosù, besegù*). Adibide bereziak, azentuaren kokalekua aldatu dutelako: *móradu, pátata, támañu, tómate, táberna, bástoi, bálkoi*.

— Mailegu zaharren azentua (gaztelera zaharrekoak edo latinekoak): ugarixeago dira azentua galdu dutenak, baina asko dira gorde dutenak ere. Azentudunen adibideak: (*d*)*ámistiku, dénpora, písti, titéra, yántza*. Azentua galdutakoan adibideak: *armosù, espatà, gorpütz, legè, porriù*. Azentuaren kokalekua aldatu bide dutenak: *ásosi, ingiru, makállau, orío*.

¹² *Madril* eta *Paris* moduko adibideez, hasiera batean, pentsa liteke mailegu oxitonoetan gertatzen den azentugabetzea dugula, besterik gabe, baina aintzat hartu behar da exotikoak diren toki-izen oxitonoak ez direla nahitaez ahoskatzen azentugabe gisa. Adibidez, Pakistan → *Pakistanerà* edo *Pakistánera*; Kuwait → *Kuwaiterà*/*Kuwáitera*; Hong Kong → *Honkonerà*/*Honkónera*, etab. Hortaz, *Paris* eta *Madril* izenak auzo-herri gisa ahoskatzen dira azentuaren aldetik ere.

- Mailegatutako aditzak: aditz mailegatuen iturria gaztelerako infinitiboa da, eta, maileguzko izen oxitonen erara, azentua galdu egiten dute euskaraz:
- *-ar* infinitibotikoak: *altzà, pisà, probà, topà* etab. (salbuespenak: *sálta, bóta*).
 - *-er* infinitibotikoak: *ledù, entenù, mobù, koxù; detenidù, sostenidù, mogidù*.
 - *-ir* infinitibotikoak: *abrosù, elejù, kunplù, medù; diskutidù, inprimidù, serbidù*.
- Salbuespen orokor dira, aditz mailegatuen azentu-galeran, hiru silabatik gorako erdal *-ar* maileguak. Horiek azken aurreko silaban hartzen dute azentua euskaraz: *akába, akórda, armósa, barrúnta* eta beste asko.
- Euskarazko hitz azentudunak:
- Izen kategoriakoak dira ia denak (70etik gora aurkitu dira): *árrutza, ártesi, átze, áurre, bélarri, gáne, gánora, górantzi, íntxor, inúrri, mái, óndo, úrdai, yústuri* etab.
 - Bereiz zerrendatu dira aditz azentudunak (10 bat): *éron, iriki, itxédon, íxertu, yáusi* etab.
- Euskal hitz azentudun adierazkorrek: bereiz zerrendatu dira balio adierazkorrez erabiltzen diren hitzak, galde daitekeelako erakusten duten lehen silabako azentua berezkoa ote den ala hitzaz gaindiko eremu bateko prominentzia-esleipen baten ondoriozkoa (intonazio eremuko, alegia). Ikuspegi hau aintzat hartuz garamatzaten adibideak aipatzen dira, hala nola ‘nire’ izenordainaren eta ‘hara’ toki-adizlagunaren azentuera bikoitzak getxoeraz: hurrenez hurren, *énelenè* eta *áralarà*. Haur-hizkerako adibide batzuk ere aipatzen dira (gehienak lehen silabako azentudunak) eta auzira ekartzen da erdal pertsona-izenen kasua ere, halakoak lehen silabako azentuz ahoskatzeko joera bat dagoelako (*ánton, nícolas* etab.).
- Bukatzeko, eta izen berezien gaia osatze aldera, pertsona-deituren kasua eta Getxoko toki-izenena eta inguruko herri-izenena aipatzen da, azentua euskal ala erdal eran kokatzearen ikuspegitik.

Bibliografia

- Arbelaz, Juan José. 1978. *Las etimologías vascas en la obra de Luis Michelena*. Tolosa: Karda-beraz.
- EHHE* = Lakarra, Manterola & Segurola (2019).
- FHV* = Mitxelena (1977).
- Gaminde, Iñaki. 1999. Bakioko azentuaz. *FLV* 80. 73-94.
- Gorrotzategi, Mikel. 2010. *Getxoko izenak*. Getxo: Getxoko Udala, Euskara Zerbitzua.
- Hualde, José Ignacio. 1989a. Acentos vizcaínos. *ASJU* 23(1). 275-325.
- Hualde, José Ignacio. 1989b. Otro acento vizcaino: Getxo. *ASJU* 23(3). 809-817.
- Hualde, José Ignacio & Xabier Bilbao. 1992. A Phonological Study of the Basque Dialect of Getxo. *ASJU* 26(1). 1-117.
- Hualde, José Ignacio, Gorka Elordieta & Arantzazu Elordieta. 1994. The Basque Dialect of Lekeitio. *ASJU* 34(1). 1-314.

- Lakarra, Joseba, Julen Manterola & Iñaki Seguro. 2019. *Euskal Hiztegi Historiko-Etimologikoa*. Bilbo: Euskaltzaindia. www.euskaltzaindia.eus/ehhe (2023/11/15).
- Mitxelena, Koldo. 1977. *Fonética histórica vasca*. 2. argit. Donostia: Gipuzkoako Foru Aldundia (1. argit., 1961; berrargit., 1990).
- Mitxelena, Koldo & Ibon Sarasola. 1987-2005. *Orotariko Euskal Hiztegia / Diccionario General Vasco*, 16 lib. Bilbo: Euskaltzaindia (10. argit. elektr. 2022: <http://www.euskaltzaindia.eus/oeh>).
- OEH = Mitxelena & Sarasola (1987-2005).
- Trask, Robert Lawrence. 2008. *Etymological Dictionary of Basque*. Falmer: University of Sussex. Max W. Wheelerek sarean argitaratzekoko editatua. <http://www.sussex.ac.uk/english/documents/lxwp23-08-edb.pdf> (2023/10/22).
- Zuazo, Koldo & Urtzi Goiti. 2016. *Uribekosta, Txorierrri eta Mungialdeko euskara*. Bilbo: UPV/EHU.